

BALIO PROPOSAMENA

Azken Aldia taldea gara eta ekintzaile bezala, gure proiektu berritzailea proposatu nahi dugu. Gure ideia herrian gazteen erabilerarako espazio pribatuak ahalbideratzea litzake; izan ere, gazteak garen horretan askotan gazteok arratsaldea pasatzeko edo ospakizunenbat egiteko leku falta sumatzen dugu. Sarritan gure beharrak kontuan hartzen ez direla sentitzen dugu, izan ere, betidanik izan da horrelako lekuen falta baina ez da konponbiderik bilatu. Esan daiteke batzuetan gazteok gure beharrak kontuan hartzen ez dituztela sentitzen dugula, beraz egoera ikusita, ideia aproposa iruditu zaigu proiektu hau martxan jartzea. Horretarako, gure nahia aplikazio bat sortzea izango litzake, horrela, gazteek eremuak erreserbatu ahal izango dituzte erabili nahi duten bakoitzean Ondorioz, aukera honekin gazteok guretzat aproposak diren espazioak eskuragarri izango genituzke. Zerbitzu honek, honako balio hauek izango lituzke:

Gaur egun gure herrian ez dago era honetako erabilera ematen duen espaziorik; izan ere, adin txikikoak garen horretan, oraindik ere ez dugu adina taberna batean egoteko edo elkarte batean izen emateko baina gazteak garenez denbora pasatzeko lekuen beharra dugu. Gainera, bazkari edo afari handiak egin nahi direnean, etxeak ez dira leku aproposak izaten leku faltarengatik, edota egun euritsuetan arratsaldea pasatzeko leku falta izaten dugu. Ondorioz, gure espazioa aukera paregabea izan daiteke arazo hauen konponbide gisa.

Leku seguruak izatea bilatuko dugu; izan ere, kalean gaudenean, askotan baliteke ez seguru sentitzea inguruan izan ditzazkegun pertsonengatik edo beste zenbait arrazoigatik. Hori horrela, guk gure guneean erabateko segurtasuna bilatuko dugu, beti ere pribatutasunarekin batera. Bestalde, mugatua ez egotea proposatzen dugu, talde bakoitzak nahi duen erabilera emateko aukera izateko; gune lasaiak egotea gustatuko litzaiguke, sofa batzuk jarriz lasai hitz egin ahal izateko. Otordu ezberdinak egin ahal izateko mahaiak jartzea ere proposatzen dugu, horrela bertan elkartu ahalko dira ospakizunak egiteko. Honekin, gure bezeroak eroso egotea eta etxean bezala sentitzea bilatzen dugu.

Eskuragarritasuna aipatuz, erabateko eskuragarritasuna bilatuko dugu denontzat; izan ere, aplikazio bat jarri nahi dugu lokalak erreserbatu ahal izateko eta horrela txandak errespetatu ahal izateko. Gaur egun mugikorra ia edonork duenez, denon eskura egongo litzake eremua erreserbatzeko aukera.

Jarraitzeko, balore kuantitatiboari dagokionez, prezioa eta abiadura aipatzekoak dira, izan ere, gazteak garez ez dugu aukera ekonomiko handia, horregatik iruditzen zaigu gazteentzat irisgarriak diren prezioak jartzea. Beste zerbitzu batzuekin alderatuta merketasuna bilatuko dugu eta denen eskura egotea, ordaindu beharreko tarifak egokitzeko asmoa baitugu. Abiaduraren inguruan aritzen bagara, gure zerbitzua oso azkarra izatea nahi dugu, izan ere, aplikazioaren bitartez erreserba oso erraza eta azkarra izatea proposatzen dugu. Bilatzen duguna erreserbatzeko ez deitzea ezta lekura bertara joatea da, gure erabiltzaileen erosotasuna bilatuz. Gainera, lekua libre egongo den bitartean nahi den aurrerapenarekin erreserbatzea proposatzen dugu, gazteok askotan denbora falta izaten baitugu.

Balore kualitatiboari dagokionez, beharrezko hornikuntza guztiak izatea proposatzen dugu, espazioak eta hornikuntza horiek kalitatezkoak izanez. Esan bezala, hainbat sofa egongotea gustatuko litzaiguke eta baita mahi joku batzuk ere, gainera bezeroek bereak eramateko eta han uzteko aukera izatea nahi dugu hurrengoekin partekatu ahal izateko (hori beren esku geratuko litzake). Mahaiak eta silak egotea ere proposatzen dugu, beti kalitatea bilatuz. Telefono finko bat egotea ere nahi dugu arazorenbat balego gurekin harremanetan jarri ahal izateko. Azkenik, noski komun bat ere jarri nahi dugu.

Azken Aldia